


EAEko eta Nafarroako gazteek zientziaz eta teknologiaz duten pertzepzioa

Azaroaren 8tik 21era Zientziaren Astea izan denez, EAEko eta Nafarroako gazteek zientziaz eta teknologiaz duten pertzepzioari buruzko zenbait datu eskainiko ditugu.

1etik 5era doan eskalan (1ak inolako interesik eza adierazten du eta 5ak interes handia), Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako 15 eta 29 urte bitarteko gazteek batez besteko 3,3ko interes-maila dute zientziarekiko eta teknologiarekiko. Eskala berarekin jarraituz, gazteek diote zientziari eta teknologiari buruz duten informazio-maila apalxeagoa dela: 2,8koa, batez beste. Bai interes-maila, bai informazioa altuxeagoak dira gazteen artean gainerako biztanlerian baino.



Zientziari eta teknologiari buruzko informazioa eskuratzeko, gazteek honako baliabide hauek erabiltzen dituzte, nagusiki: telebista, Internet eta eguneroko prentsa ordaindua. Nolanahi ere, gazteak kritikoak dira prentsak, irratiak eta telebistak gai honi ematen dioten arretari dagokionez, ez dela nahikoa deritzote eta.

Gazte hauetako erdiak baino gehiagok (%53) iritzi positiboa dute zientziari eta teknologiari buruz, eta gizarte-ongizatea areagotzen laguntzen dutela uste dute.

Gazteek 4,0ko puntuazioa ematen diote zientzialarien lanbideari 1etik 5erako eskalan. %55en aburuz, gazteentzako lanbide erakargarria da zientzialariarena, eta, %57en ustez, pertsonalki konpentsatu egiten du.

Datu hauek eta beste hainbat “Zientzia eta teknologiaren gizarte pertzepzioaren inkesta” azterlanean zehazturik aurki daitezke. Azterlana, *Soziologiazko Euskal Koadernoak* bildumaren 27. zenbakian argitaratua, Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak burutu du, Elhuyar Fundazioaren eskariz. FECYT-en elkarlanean egindako ikerketa baten baitan, CISek 2006an Euskal Autonomia Erkidegoari eta Nafarroari buruz jaso zituen datuak erabili dira azterlanean.

Esteka:

http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/cuaderno_sociologico_vasco_27/es_cu_soc27/adjuntos/csv27.pdf

